



GERNIKA-LUMOKO UDALAREN GAZTE PLANERAKO PROPOSAMENA

Gernika-Lumo, Maiatza 2006



80etako hamarkadatik ugaritu egin dira gazteriari buruzko ikerketak, gazteriaz esparru publikoan zegoen maila askotako kezka erakusgarri. Joera hau nabaria da Europan zein Estatu mailan (Gazteriaren Institutua, Santa María Fundazioa...) eta azpimarratzekoak dira autonomia erkidegoetan eta herri mailan gazteriaz egin diren ikerketak (Eusko Jaurlaritzak, Andaluziako Junta,...).

Ikerketak erreferentzia egiten dion eskumen maila gorabehera, ikerketa desberdinek, diseinatzen diren inkestetan, hainbat gai jorratzen dituzte, kontzeptualizazio teoriko eta interes publiko desberdinen arabera. Gaien ugaritasuna ikerketen desberdintasunean islatzen da. Ikus daitekeen bezala, zenbait kezka (etxebizitza, langabezia, alkoholaren kontsumoa...) behin eta berriz agertzen dira ikerketa guztietan. Hala ere, aisiaren arazoa sakabanatuta agertzen da eta adierazleen definizio argirik gabe.

Gazte planei dagokienez, adibide multzo zabala dugu, baina funtsean autonomia erkidegoen esparrukoak dira. Toki mailakoak, gehienetan 50.000 biztanletik gorako udalerriek prestatuak dira.

Aurrekariak

Gernika-Lumo udalerriko Gazte Plana Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) II. Gazte Planaren lurralde eta herri mailako garapen eta ezarpenaren barruan kokatzen da.

1998ko maiatzaren 26an Eusko Jaurlaritzak I. Gazte Plana martxan jartzea onartu zuenetik bide luzea egin da. Lehenengo Gazte Plan hark "gazteriaren politika lantzeko bide berria" urratu zuen, "eta, ildo horretatik, aitzindaria ere izan zen Estatu Espainiarrean eta Europan" (Eusko Jaurlaritzak, 1999:7). I. Gazte Planean erakundeek esku hartzeko bost arlo edo esparru bereizi ziren pertsona gazteen bizitzan zuten eragin bereziaren arabera: lana eta laneratzea, araututako eta arautu gabeko irakaskuntza, etxebizitza, osasuna eta bizi kalitatea, eta aisia eta kultura. Arlo hauetako bakoitzaren diagnostikoa eta esku hartzeko proposamen batzuk egin ziren. Bost arloekin batera, zeharkako elementu bi nabarmendu ziren: gizarte balioen sustapena eta pertsona gazteen parte hartze demokratikoa, alde batetik, eta gazteen munduan inplikaturik zeuden gizarte eragileen ardurakidetasuna eta parte hartzea, bestetik.

EAEko II. Gazte Planak (2002-2005) "gazteen arazoari ikuspegi global batetik heltzeko beharrianari erantzuten dio, gazteen errealitatea hainbat dimentsiotatik kontuan hartuta: lana eta laneratzea, hezkuntza eta prestakuntza, etxebizitza, osasuna eta gizartekintza, eta gazteentzako aisia eta kultura" (Eusko Jaurlaritzak, 2002:31). Planak berak dioen bezala, "I. Gazte Plana II. Gazte Plan bihurtzeko prozesua hiru berrikuntza iturritatik elikatzen da, funtsean: balioen



inportantziaren enfasitik, Planari eman beharreko bultzada berritik eta diagnostikoaren, esku hartzeko ildoen eta ekintzen doikuntzan oinarritutako birbideratzetik" (Eusko Jaurlaritza, 2002:32).



Printzipioak

Gernika-Lumoko Gazte Planaren goiburu diren printzipioak Eusko Jaurlaritzak proposatutako gazte planak ulertzeko modutik sortuak dira zuzenean, baita Plana diseinatzen duen ikertaldearen lanaren oinarri diren kontzeptuen ardatzetatik sortuak ere. Honela ulertzen ditugu printzipioak: "Planaren gainerako osagaien oinarri diren kategoriak: helburuak, estrategiak, programak edota ekintzak". Printzipio hauek zehaztu eta bideratu egiten dute ekintza, erreferentzia marko kontzeptualetik abiatuta, eta printzipio horiek dira aplikatuko diren planteamendu zehatzen oinarriak.

Aniztasun printzipioa	Azturak, praktikak, kontsumoak, motibazioak, beharrianak eta eskariak gazte moten inguruan biltzen dira. Gazteak adinaren, sexuaren, hezkuntza mailaren eta maila sozio-ekonomikoaren, jatorriaren eta kokapen geografikoaren... arabera daude sailkatuta.
Zeharkakotasun printzipioa	Esku hartze partzialak gaindituko dituen plan integral bat burutzea honako gaietan: lana, laneratzea, hezkuntza eta prestakuntza, etxebizitza, osasuna eta gizarte-ekintza, eta gazteen aisia (kultura, turismoa, kirola eta jolasa). Hori dela eta, Udaleko sailen arteko zeharkako lana funtsezkoa da Plana prestatzeko orduan. Aparteko garrantzia emango zaie esku hartzeko zeharkako bi arlori, gure ustez esku hartzeko arlo guztiei eragiten baitiete: euskarari eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiei (IKTak).
Parte hartze printzipioa	Kontua da mugimendu eta elkarteetan dauden pertsona gazteak ez ezik herritar soilak ere inplikatzeko, gazte horien guztien beharrian eta eskariak jasotzea.
Inklusio printzipioa	Pertsona gazteek parte hartze aktiboa izateko, eta kultura, enplegu, hezkuntza, etxebizitza bat izateko aukera berdintasunerako laneko metodologiak garatzea.
Genero ikuspegiaren printzipioa	Ezin bestekoa da emakume gazteak desberdintasun eta injustizia sozialean jartzen dituzten bazterkeriazko egoerak antzematea eta horretaz kontzientziaztea zuzendu ahal izateko.



Subsidiarotasun printzipioa	Udalaren Gazteria Sailak Plana garatzeak eta martxan jartzeak dakartzan ardurak bere gain hartu beharko lituzke, eta errespetatu egin beharko luke pertsona bakoitzak bere ardurak hoberen bete ditzakeen tokian betetzeko eskubidea eta botere publikoek pertsona bakoitzari osotasunean errealizatzeko bitartekoak emateko betebeharra.
Munizipalizazio printzipioa	Proposatutako neurriak udalerrri bakoitzaren beharrian eta eskari berezietara egokitu behar dira.




Egitura

Gernika-Lumoko Gazte Plana azterketa, diagnostiko eta prestaketa prozesu luze baten emaitza da. Prozesu horretan inplikaturik egon dira gazteak eurak, elkartetako ordezkariak, sektore pribatua eta herria, foru eta autonomia erkidegoko administrazioa. Planak ekintza zuzenerako proposamenak jasotzen ditu, zerbitzuen prestazioaren hobekuntza eragiten baitute, baita dinamizazioarako eta komunikazioarako proposamenak ere, gazteen autonomia eta emantzipazio mailan sakontzen baitute.

Liburu Zurian jasotako egoeraren diagnostikoa oinarri harturik, foro birtualeko proposamen, elkarrizketa sakon eta lan-taldeak, baita udalerrian indarrean dauden era guztietako planak ere, dokumentu bat idatzi da Gazte Plan honetan garatu beharreko xede, helburuak, ildoak, programa, ekintza eta baliabideekin.

Ondorengo irudian jasotzen da, era eskematikoan, Planaren egitura.





Lehenengo eta behin, plan osoari zentzua ematen dion xede nagusia azaltzen da. Horren ostean, lan arlo bakoitzeko funtsezko helburuak ezartzen dira. Lehenengo arloa planaren koordinazio eta kudeaketa kontuen gainekoa da; besteak Euskadi Gazte Planean bereizten diren arlo kritikoak dira: lana, hezkuntza eta prestakuntza, etxebizitza, osasuna eta gizarte-ekintza, gazteen aisia eta kultura.

Bigarrenik, lan ildoak zerrendatzen dira, bai ekintzakoak (ZERBITZUAK) bai sustapen eta komunikaziokoak (PROZESUAK). Arlo bakoitzaren barruan, lan ildoak zenbakitu egin dira, bilaketa errazteko.

Hirugarrenik, lan ildo bakoitza lan fitxa batean garatu da. Fitxa horretan honakoak zehaztu dira:

Programak: programa bakoitza lan ildo aurrera eramateko ekintza multzo bat da. Programak eta ekintzak lotuta daude, dagokien zenbakiarekin eta izenarekin.

Ekintzak: ekintzak programa bakoitzaren edukiaren zehaztapena dira eta bakoitzerako aldagai operatibo batzuk definitu dira. Programa bakoitzeko ekintzetan honakoak zehazten dira: euren zenbakia, azalpen laburra eta izena, eta inplementazioa deskribatzen duten aldagai operatiboak.

Jarraian, ekintza bakoitzaren inplementazioa definitzen duten aldagai operatiboak daude deskribatuta.

- **Oinarria:** Planeko ekintza argumentatzen duen erreferentzia: EGP (Euskadi Gazte Planak proposatutako jarraibideak), ESRD (eskariaren diagnostikoa), ESTD (eskaintzaren diagnostikoa), LT (lan taldeak), GT (gazteen taldea: Institutua eta foroa), EP (esku hartzeko herri edo eskualdeko planak), IT (ikertaldeak lan ildorako egindako ekarpenak).

- **Hartzaileak:** nor den ekintzaren helburua [GAZ (gazte guztiak, oro har), 1M (1. mota), 2M (2. mota), 3M (3. mota)], EG (eragile guztiak), PROF (planak ukitzen dituen arloetako profesionalak), IR (irakasleak), GU (gurusoak), HE (hezkuntza elkarteak), GES (gazte elkarten sarea), IAG (irabazi-asmorik gabeko sektore pribatua), IAD (irabazi-asmoa duen sektore pribatua).

- **Eragileak:** ekintzak diseinatzen eta aurrera eramaten esku hartzen duten eragile eta sektoreak: EJ (Eusko Jaurlaritzako sailak), BFA (Bizkaiko Foru Aldundiko sailak), MANK (Busturialdeko Mankomunitatea), KM (Koordinazioko



mahaia), UDAL (Udaleko beste sail edo zinegotzi batzuk), GIB (Gazteentzako Informazio Bulegoa), BHG (Behargintza), HE (hezkuntza elkartea: klaustroa, familiak eta ikasleak), IAG (irabazi-asmorik gabeko sektore pribatuko erakundeak), IAD (irabazi-asmoa duten sektore pribatuko enpresak), GAZ (gazteak) eta EG (eragile guztiak).

- **Epeak:** programak burutzeko epeak: EL (epe laburra, Plana ezarri eta lehenengo urtearen barruan, 2007ko martxoaren 1erako hasita egon behar dute), EE (epe ertaina, hurrengo legealdiaren barruan, 2010eko martxoaren 1a baino lehen martxan jarrita) eta ELU (epe luzea, erabateko ezarpena 2012ko abenduaren 31 baino lehen amaituta egon behar du).

- **Baliabideak:** ekonomia zuzkidura, azpiegitura edo programa martxan jartzeko behar den materiala: + (baxua: esku-ra dauden baliabideak eskatzen ditu), ++ (ertaina: baliabide berriak eskatzen ditu) eta +++ (altua: baliabide atipikoak edo bereziak eskatzen ditu).



I. XEDEA

Gernika-Lumoko gazteen beharrezko erantzun egokia ematea, kalitateko zerbitzuak eskainiz (lana eta laneratzea, hezkuntza eta prestakuntza, etxebizitza, osasuna eta gizarte-ekintza, aisia eta kultura) eta euren autonomia eta emantzipazio maila goratzeko prozesuak garatuz (jakintza, parte-hartzea eta koordinazioa).

Xede honetatik sortzen dira Planaren gakoak:

1. **KOORDINAZIOA.** Eragile publiko eta pribatuen (irabazi-asmodunak edo irabazi-asmorik gabekoak) artean koordinatuta lan egitea funtsezkoa da plana abian jartzeko eta berau inplementatzeko.
2. **KUDEAKETA.** Lehentasunezko elementua da kudeaketa, Planaren helburu diren arlo bakoitzeko zerbitzuen kalitatea bermatzeko.
3. **EZAGUTZEA.** Funtsezkoa deritzogu gazteek informazioa jasotzeari, informazioa kontsultatzeko eta bilatzeko ohitura hartzeari, eta arlo bakoitzean dauden baliabideen berri izateari.
4. **PARTE HARTZEA.** Beharrezkoa deritzogu gazteak zerbitzu eta programen eskaintzaren fase bakoitzean (sortu, diseinatu, garatu eta ebaluatu) inplikaturik egoteari.



2. ARLOAK

Arloak	Helburuak
Gazte Planaren koordinazioa	H1K. Planaren inplementazioa eta jarraipena bultzatzea
Lana eta laneratzea	H2LL. Lan munduan sartzea erraztea
Hezkuntza eta prestakuntza	H3HP. Erantzun integrala sustatzea Heziketa Komunitatetik.
Etxebizitza	H4E. Etxebizitza bat lortzeko aukerak indartzea
Osasuna eta gizarte-ekintza	H50GE. Ongizatea eta bizi kalitatea ziurtatzea
Gazteentzako aisia eta kultura	H6AK. Kalitatezko, parte hartzeko eta asebetegarria izango den aisia eskaintza bermatzea



3. ESKU HARTZEKO ILDOAK

Helburuak	Esku hartzeko ildoak
H1K.Planaren implementazioa eta jarraipena bultzatzea	11K. Plana koordinatzen duten egitura eta prozesuak definitzea 12K. Gazteen parte hartze aktiboa sistematizatzea Planaren garapenean
H2L.Lan munduan sartzea erraztea	13LL. Politika integrala diseinatzea enplegu arloan
H3HP.Erantzun integrala sustatzea Heziketa Komunitatetik	14HP. Gai gakoak eskola elkartetik eta elkartearentzat, era globalean esku hartzeko proiektu bat antolatzea 15HP. Bizitzan zeharreko prestakuntza jasotzeko aukera emango duen ildo bat sendotzea
H4E.Etxebizitza bat lortzeko aukerak indartzea	16E. Etxebizitza arloan dauden alternatibak sustatzea 17E. Etxebizitza arloko balabideak ezagutzea eta erabileraren berri zabaltzea
H4E.Etxebizitza bat lortzeko aukerak indartzea	180GE. Bizi estilo osasungarriak lantzea 190GE. Elkartearen esparrutik, arriskuzko jokabideak prebenitzea eta beraietan esku hartzea
H6AK.Kalitatezko, parte hartzeko eta asebetegarria izango den aisia eskaintza bermatzea	110AK. Aisiako eskaintza beharrian eta eskarietara egokitzea 111AK. Gazteen elkarte sarea bultzatzea



4. PROGRAMAK ETA EKINTZAK



GAZTE PLANAREN KOORDINAZIOA

1

HiK. PLANAREN INPLEMENTAZIOA ETA JARRAIPENA BULTZATZEA

IiK. PLANA KOORDINATZEN DUTEN EGITURA ETA PROZESUAK DEFINITZEA

P.I. PLANAREN KOORDINAZIOA		O ¹	H ²	ER ³	EP ⁴	B ⁵
E1	<p>Koordinazio eta kudeaketarako egitura definitzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Koordinazio Mahaia sortzea; gazteria arloko politikariak eta teknikari arduradunak osatuko dute eta izaera iraunkorra izango du. - Gazteriako Politikarien Mahaia sortzea; Gazteriako zinegotziak eta beste udal arlo batzuetako arduradun politikoeak, tokiko autonomiadun erakundeen presidenteak eta mankomunitateko presidenteak osatuko dute, eta hiru hilerik behin batuko dira. - Gazteriako Teknikarien Mahaia sortzea; Gazteriako teknikariak eta beste udal arlo batzuetako teknikari arduradunek, tokiko autonomiadun erakundeen kudeatzaileak eta mankomunitateko teknikariak osatuko dute, eta hiru hilerik behin batuko dira. 	IT	GAZ	EJ BFA MANK UDAL KM GIB BHG	EL	+

O: oinarria
H: hartzaileak
ER: eragileak
EP: epeak
B: baliabideak



P.I. PLANAREN KOORDINAZIOA (JAR.)		O	H	ER	EP	B
E2	Gazte Foroa sortzea; Koordinazio Mahaia, gazteek eta gazte elkarteek osatuko dute - Hiru hilerik behin batzeko deia - Hasitako ekintzen ebaluazioa - Garatu beharreko ekintzen balorazioa - Iradokizunak eta komentarioak	IT	GAZ GES	KM	EL	+
E3	Gizarte Eragileen Mahaia sortzea; erakunde publikoek (tokikoak, herrialde mailakoak eta autonomia erkidego mailakoak), sektore pribatuak eta elkarte sareak osatuko dute. Hiru hilerik behin batuko da	IT	GAZ	EJ BFA MANK UDAL KM GIB BHG	EL	+
E4	Gazteentzat dauden zerbitzuak -Gazteen Informazio Bulegoa, Gazteleku, etab.- mantendu eta hobetzea, eskumen eta giza, diru eta material baliabide gehiago emanez	LT	GAZ	EJ BFA MANK UDAL KM GIB BHG	EL	++
E5	Udal teknikari bat izendatzea, Gazte Planaren koordinazioaz, ezarpenaz eta jarraipenaz arduratu dadin	IT	EG	EJ BFA MANK UDAL KM GIB BHG	EL	++



P.2. PLANA EZAGUTZEA		O	H	ER	EP	B
E6	Gazteria zerbitzuaren esparruan, Planaren Bulego bat sortzea, Plana osatzen duten ekintzak kudeatu, dinamizatu eta ezagutarazteko.	IT	GAZ	KM	EL	+
E7	Intranet bat martxan jartzea; bertan, Planaren koordinazio eta kudeaketarako egitura osatzen duten pertsona eta erakundeak sartuko dira	IT	EG	KM	EL	+
E8	Plana inplementatzeko sortu den egitura ezagutaraztea bide guztietatik <ul style="list-style-type: none"> - Koordinazio Mahaia - Gazteriako Politikarien Mahaia - Gazteriako Teknikarien Mahaia - Gazte Foroa - Gizarte Eragileen Mahaia - Lehen ekintzak 	IT	EG	KM	EL	+
E9	Planeko edukiarekin zerikusia duten zerbitzuen menu bat diseinatzea, GIB-ren kompetentzia: <ul style="list-style-type: none"> - Gazte ekimenak bultzatzeko zerbitzua - Kultur, kirol, hezkuntza... ekipamenduetan informazio gune deszentralizatuak - Gazte informazio eta baliabidez osatutako datubasea - Baliabideen gida, aisialdi, hezkuntza, osasun, etxebizitza eta gazte enpleguaren arloan - Informazioa emateko bide pertsonalizatuak (esku-ko telefonoa, e-mail...) 	IT	GAZ	KM GIB	EL	+



I2K. GAZTEEN PARTE HARTZE AKTIBOA SISTEMATIZATZEA PLANAREN GARAPENENAN

P.3. PLANAREN PARTE HARTZEA		O	H	ER	EP	B
E10	Gazte Foroaren sorrerari eta gazteek foro horretan parte hartzeko beharrianari buruzko informazio kanpaina martxan jartzea	IT	GAZ	KM	EL	+
E11	Gazte e-foro iraunkor bat jartzea udalaren web orrian	IT	GAZ	KM GIB	EL	+
E12	Elkarte sarearekin lan bilera bat egiteko deialdia egitea, Gizarte Eragileen Mahaiaren sorrera jakinarazteko eta elkarteek mahai horretan modu iraunkorrean parte hartzea beharrezkoa dela jakinarazteko.	LT	IAG	KM	EL	+
E13	Bando publiko baten bidez, herritar guztiak honako hauetara gonbidatzea: - Alkatearen batzar informatiboa gazte guztientzat - Alkatearen batzar informatiboa herritar guztientzat - Udaletxean postontzi bat jartzea Planari buruzko iradokizunak jasotzeko	IT	EG	UDAL	EL	+



LANA ETA LANERATZEA

2

MI.C. LAN MUNDUAN SARTZEA ERRAZTEA

LI3TI. POLÍTICA INTEGRALA DISEINATZEA ENPLEGU ARLOAN

P.4. LANA KOORDINATZEA		O	H	ER	EP	B
E14	Topaketa bat egitea enplegu arloko arduradun politikoaren eta teknikoaren eta sektore pribatuaren artean, Gizarte Eragilean Mahaiaren sorreraren berri emateko eta mahai horretan modu iraunkorrean parte har dezaten beharrezkoa dela adierazteko.	IT LT	IAD IAG	UDAL	EL	+
E15	Koordinazio Mahaiak Aholku Talde Tekniko bat sortu behar du; talde hori profesionalak osatuko dute eta taldeari arlo honetako gai garrantzitsuen gaineko kontsultak egingo zaizkio	IT LT	IAD IAG PROF	KM	EE	+
E16	Enplegu arloko arduradun politikoen eta teknikoen eta erakunde pribatuen (irabazi asmorik gabekoak eta irabazi asmoa dutenak) arteko batzarrak eta topaketak, enplegua aztertu, koordinatu eta bultzatzeko, udalaren eremuan dauden beharrian eta eskarrietan oinarrituta.	LT EST IT	IAD IAG	UDAL	EE	+
E17	Behargintza, Langai eta gazteak laneratzeko preskakuntza zerbitzuen ardura duen Lanbide Ekimenak zentruarekin elkarlanean, inguruko enprekin akordioak sinatzea, udalerriko gazte kualifikatuak kontratatuzeko.	EST	GAZ	UDAL	EE	+



P.5. LANA KUDEATZEA		0	H	ER	EP	B
E18	<p>Prestakuntza eta enplegu arloan dagoen eskaintza zabaltzea honako hauen bidez:</p> <ul style="list-style-type: none">- Ikastaro zehatzak eta merkatuaren beharrianetara bideratuak, laneratze maila desberdinekin- Ordaindutako prestakuntza ikastaroak, kontratazio aukerekin- Gaitasun eta trebetasunak lantzen dituzten enplegurako prestakuntza programak- Autoenpleguari buruzko ikastaro monografikoak	EGP LT EST	GAZ GES	UDAL BHG	EE	++
E19	<p>Autoenpleguaren Azoka bat antolatzea; honakoak eskainiko dira bertan:</p> <ul style="list-style-type: none">- Enplegu-sorgune berriei buruzko informazioa- Esperientzia pilotuen hedapena- Ekintzaile kulturaren gaineko hitzaldiak	EGP IT	GAZ GES	KM UDAL	EE	+



P.6. LANA EZAGUTZEA		0	H	ER	EP	B
E20	<p>Enpleguaren gaineko komunikazio plan bat diseinatzea. Honako ekintzak sartuko dira:</p> <ul style="list-style-type: none">- Komunikazio plana Behargintzaren- Udalerriaren gida, lanbide arloko baliabide eta orientazioari buruz- Gazte enpleguan espezializaturiko datu-basea- Ekonomi jardueren proiektuetarako dauden laguntzen berri ematea, hain zuzen ere, esleipen irizpideen artean gaztea izatea dutenena- Informazio bideak dibertsifikatzea	EGP BHG EST EP	GAZ	BHG KM	EE	++

**HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA****3****H₃HP. ERANTZUN INTEGRALA SUSTATZEA HEZIKETA KOMUNITATETIK****I₄HP. GAI GAKOAK ESKOLA ELKARTETIK ETA ELKARTEARENTZAT, ERA GLOBALEAN ESKU HARTZEKO PROIEKTU BAT ANTOLATZEA**

P.7. HEZKUNTZA KOORDINATZEA		0	H	ER	EP	B
E21	Heziketa formaleko arduradun politiko eta teknikoen eta sektore publiko zein pribatuaren arteko koordinazioa Udal Eskola Kontseiluaren bitartez gauzatu eta Gizarte Eragileen Mahaiaren sorrerari eta era egonkorrean parte hartzeko beharrianari buruzko informazioa eman.	LT IT	IAD IAG	UDAL	EL	+
E22	Koordinazio Mahaiak heziketa arloko Aholku Talde Teknikoa eratu behar du, profesionalak osatutakoa, arloko gai garrantzitsuei buruzko kontsultak egiteko	LT IT	IAD IAG PROF	KM	EE	+
E23	Heziketa saileko arduradun politiko eta teknikoen eta erakunde pribatuen (irabazi asmorik ez dutenak eta irabazi asmoa dutenak) arteko bilera eta topaketak, beharrian eta eskaerei erantzungo dien esku-hartze globala aztertu, koordinatu eta bultzatzeko.s	LT IT	IAD IAG	UDAL	EE	+
E24	Lankidetzaren hitzarmenak sinatzea heziketa zentron eta udalerriko edo eskualdeko enpresen artean, bisitak, hitzaldiak, mahai-inguruak, esperientzien aurkezpenak, praktikak (ordaindutakoak zein ordaindu gabeak) antolatzea.	LT EST	GAZ	HE IAD	EE	+
E25	Merkataritza sektorearen eta ikastetxeen arteko lankidetzaren, eskolaz kanpoko jarduerak babesteko	LT EST	GAZ	HE IAD	EE	+



P.8. HEZKUNTZA KUDEATZEA		O	H	ER	EP	B
E26	Balore heziketaren gaur egungo egoera identifikatzea (proiektu bereziak, zehar-lerroak, etab.), eskola eta eskolaz kanpoko jarduera osoan (zentro bakoitzean eta heziketa maila bakoitzean). Hezkidetzak.	EGP LT	GAZ	HE	EL	+
E27	Baloreen transmisioari buruzko gogoeta egiteko topaketak: - Familiekin - Gazteekin Gurasoen Elkarteek antolatuta eta arloko profesionalak gonbidatuz.	IT EP	GU GAZ	HE	EE	+
E28	Demokrazia, tolerantzia, bakea eta askatasuna sustatzea, gatazkak konpontzeko programen bitartez.	IT EP	GAZ	HE	EE	+
E29	Gazteak eraikuntza europarraren eta globalizazioaren prozesuetara hurbilduko dituen mintegi bat antolatzea (eskubideak, aukerak, elkartasuna, justizia soziala, immigrazioa, lan-kidetzak garapen bidean dauden herrialdeekin eta kultura aniztasuna). Honi lotuta Busturialdeko Mankomunitateak eratutako Inmigratio Planaren Hezkuntza atalean ikasle etorkinei begira aintzat hartutako ekintzak kontuan artesa, gazte etorkinen gizarteratzea errazteko.	EGP IT	GAZ	HE	EE	+
E30	Irakasleak eta ikasleak trebatzea gatazkak elkarrizketa eta parte-hartze bidez konpontzeko, hori baita bizikidetzak ahalbidetzeko tresna.	EGP IT	HE GAZ	HE	EE	+
E30 bis	Irakaskuntzan euskararen tratamenduari dagokionean, Gernika-Lumoko Udalak Euskeraren Plan Estrategikoaren Hezkuntza esparrurako onartu zituen neurriak eta ekintzen kontuan hartzea					



P.8. HEZKUNTZA KUDEATZEA (JAR.)		0	H	ER	EP	B
Heziketa jarduera						
E31	Ikastetxeetatik zailtasunak dituzten gazteei zuzendutako laguntzarako egitura malguak antolatzea (lantaldeak, eztabaidak...). Egitura horiek ikasle eta irakasleek osatuko dituzte	IT	GAZ	HE	EE	+
E32	Ikastetxe eta udalen artean jarduera bateratuak diseinatzea, komunitate edo eskola azpiegiturretan	IT EST	GAZ	UDAL HE	EE	+
E33	Ikastetxe, erakunde publiko (Udal Eskola Kontseilua, Kirol Patronatua) eta elkarten artean eskolaz kanpoko jarduerak abian jartzea, eskaintza zabalagoa egiteko. Lan horretan, ikasleen eta adin-tarte desberdinen eskaerei erantzun beharko zaie.	IT EST	GAZ	UDAL HE IAG	EE	+
E34	Udalerriko gazteen eta gazteentzako hitzaldi egitarau bat prestatzea, heziketa arlotik lan mundura egin beharreko bidea azaltzeko.	IT ESR	GAZ	HE IAD	EE	+



P.9. HEZKUNTZAN PARTE HARTZEA		0	H	ER	EP	B
E35	<p>Irakasleei zuzendutako prestakuntza jardunaldiak, ikasleen parte-hartzea sustatuko duten trebetasunak eta estrategiak eskuratu ditzaten</p> <ul style="list-style-type: none"> - Urteko birziklapen ikastaroa - Lan-saioa klaustroan (ikasleek Zentroaren Curriculum Proiektuan parte hartzeko prozesuak) - Lan-saioa familiekin - Esperientzia-foroa 	IT	EJ IR	HE	EE	++
E36	Parte-hartzeari buruzko unitate didaktiko monografikoak planifikatzea. Unitate didaktiko horiek, gutxienez, ebaluazio baten garatuko dira, bigarren hezkuntzako maila guztietan	IT	GAZ	IR	EE	++
E37	Sei hilerik behin aldizkari bat argitaratzea. Aldizkariak Gurasoen Elkarateek egindako lana bilduko du, eta familiak elkartean parte hartzera gonbidatuko ditu	IT	GU	IAG	EE	++



I5HP. BIZITZAN ZEHARREKO PRESTAKUNTZA JASOTZEKO AUKERA EMANGO DUEN ILDO BAT SENDOTZEA

P.I.O. PRESTAKUNTZA EZAGUTZEA		O	H	ER	EP	B
E38	Aholkularitza gazteei, heziketa zentroetatik, prestakuntza ibilbidea aukeratzeko eta lana bilatzeko prozesuetan. Lan merkatuari buruzko informazioa ere jasoko da (enplegarritasun maila eta ordainsariak)	LT IT ESR EST EP	GAZ	IR	EE	+
E39	DBH, Batxiler eta LHko ikasleak trebatzeko ikastaroenak, prestakuntza ibilbidea definitzeko orduan	LT IT EST ESR	GAZ	PROF	EE	+
E40	Familiatzako orientazio gidaliburu bat prestatzea, heziketa ibilbideei, ezaugarriei, mugikortasun aukerei, lan irteerei, bekei eta laguntzei buruz	IT	EJ GU	HE	EE	++
E41	Heziketa eta prestakuntzarako beka eta laguntzei buruzko informazio zerbitzua ematea	IT ESR	GAZ	GIB	EL	+
E42	Ikasleei zuzendutako programak inplementatzea, inguruarekiko erlazio hobea ahalbidetuko duten komunikazio trebetasunak garatzeko (hizkuntza, teknologia eta harreman arloko trebetasunak)	IT LT EP	GAZ	HE	EE	++
E43	Informazioaren Teknologiei (IT) eta eleaniztasunari buruzko prestakuntza proiektuak egitea	IT	EJ GAZ	HE	EE	++



ETXEBIZITZA

4

H4E. ETXEBIZITZA BAT LORTZEKO AUKERAK INDARTZEA

I6E. ETXEBIZITZA ARLOAN DAUDEN ALTERNATIBAK SUSTATZEA

P.II. ETXEBIZITZA KOORDINATZEA		O	H	ER	EP	B
E44	Gizarte Eragileen Mahaia sortzeko posibilitatea aztertu. Gaur egun oso zaila ikusten da arlo honetako sektore pribatua inplikatzeko.	LT IT	IAD IAG	UDAL	EL	++
E45	Koordinazio Mahaiak etxebizitza-arloko aholkularitza-talde teknikoa sortu beharko du. Taldea profesionalek osatuko dute eta arloko gai garrantzitsuei buruzko galderei erantzun die.	LT IT	IAD IAG PROF	KM	EE	+
E46	Hirigintza, Etxebizitza eta Gazteria sailerako arduradun politikoak eta teknikariak, Eusko Jaurlaritza, sustatzaileak, higiezinako enpresak eta finantza-erakundeak bildu beharko dira, Gazte Planean euren eskumenekoak diren alderdiak aztertzeko, koordinatzeko eta bultzatzeko.	IT	EJ BFA UDAL KM IAD IAG	KM	EL	+
E47	Lankidetzaren hitzarmena sinatu beharko da lehenik dauden etxebizitza-behatokiekin, informazioa eta lan-metodologiak trukatzeko.	EGP IT	GAZ	KM	EE	+



P.12. ETXEBIZITZA KUDEATZEA		0	H	ER	EP	B
E48	<p>Etxebizitza eskuratzeko aukera eskaintzen duen alokairua zabaldu ahal izateko beste instituzio batzuen iharduera inplikatzeko du. Udalaren lana edo ardura gazteei informazioa jakinaraztea eta laguntza eskaintzea da:</p> <ul style="list-style-type: none">- Alokairuaren kultura bultzatzeko kanpainak abian jarri.- Etxebizitza arloan egiten diran planak ezagutzera eman.	EGP LT IT ESR EST EP	GAZ	KM UDAL	EE	+



I7E. ETXEBIZITZA ARLOKO BALAPIDEAK EZAGUTZEA ETA ERABILERAREN BERRI ZABALTZEA

P.13. ETXEBIZITZA EZAGUTZEA		O	H	ER	EP	B
E49	Etxebizitzari buruzko informazioa agertu beharko da gazteentzako informaziorako sarean eta toki-sistematan.	IT	GAZ	GIB	EL	+
E50	Etxebizitza arloko baliabideen gida egin eta zabaldu beharko da gazteen artean.	IT	GAZ	GIB	EE	++
E51	Aldian-aldian, hirigintzako planei eta udalerriko babes ofizialeko etxebizitzaren sustapenari buruzko informazioa zabaldu beharko da gazteen artean.	IT ESR	GAZ	GIB	EL	+
E52	Aldian-aldian, gazteen premiak, eskariak eta tipologia aztertu beharko dira, etxebizitza-arloko planak behar den moduan bideratzeko eta gazteen artean egoera txarragoan dauden sektoreak kontuan hartzeko.	EGP IT	GAZ	UDAL	EE	++

**OSASUNA ETA GIZARTE- EKINTZA****5****H5OGE. ONGIZATEA ETA BIZI KALITATEA ZIURTATZEA****I8OGE. BIZI ESTILO OSASUNGARRIA LANTZEA**

P.14. OSASUNA KOORDINATZEA		0	H	ER	EP	B
E53	Bilera bat egitea Osasun eta Gizarte Ongizate saileko arduradun politiko zein teknikoekin eta sektore pribatuarekin, Gizarte Eragileen Mahaiaren sorreraren berri emateko eta mahai horretan modu iraunkorrean parte har dezaten eskatzeko	LT IT	IAD IAG	UDAL	EL	+
E54	Koordinazio Mahaiak Osasun eta Gizarte Ekintzaren arloko Aholku Talde Tekniko bat sortzea, profesional ez osaturikoa, arlo horretan funtsezkoak diren gaiak kontsultatzeko	LT IT	IAD IAG PROF	KM	EE	+
E55	Lan bateratua bultzatzea, eta udalen eta elkarte-gintzaren arteko sinergiak aprobetxatzea	LT IT	IAG GAZ	KM	EE	+
E56	Osasunaren arloko ekimen bateratuak abiaraztea udal, osasun zentro, anbulatorio, ikastetxe eta beste eragile batzuen artean	EST	GAZ GES	UDAL HE	EL	+
E57	Gazteen osasunaren hainbat alderdiri buruzko eztabaida soziala bultzatzea	EST EP	GAZ GES	KM	EE	+
E58	Aholkularitza tekniko eta bitarteko materialak eskaintzea gizarte gaiekin lan egiten duten elkartei, boluntarioak presta ditzaten	LT EST	IAG GES	KM GIB	EL	+
E59	Busturialdeko Boluntarioen Plataforma sortzea, bizipenak partekatuz eta zabalduz gazteak erakartzeko	EGP IT	IAG GES	KM UDAL MANK	EE	++



P.14. OSASUNA KOORDINATZEA (JAR.)		O	H	ER	EP	B
E60	Boluntariotzako erakunde eta proiektuei, elkartegintzari eta GKEei buruzko prestakuntza ikastaroa	EGP IT	IAG GES	BFA MANK	EE	++

P.15. OSASUNA KUDEATZEA		O	H	ER	EP	B
E61	Ikastetxeei zuzenduriko prestakuntzako neurriak ezartzea, osasun hezkuntzarako programa sare baten bidez	EGP IT	HE	EJ	EL	+
E62	Gazteentzako ikastaroak antolatzea, norberaren baliabideak garatzera zuzenduak (trebetasun sozialak, kognitiboak, emozionalak...)	IT PI	GAZ GES	HE IAG	EE	++

P.16. OSASUNA EZAGUTZEA		O	H	ER	EP	B
E63	Gazteen eta familien artean aztura osasungarriak ezagutaraztera eta bultzatzera zuzenduriko ikas-materialak prestatzea	EGP IT	HE GAZ GU	HE IAG EJ	EE	++
E64	Gazteen osasunarekin eta bizi-azturekin zerikusia duten gaiei buruzko baliabideen gida interaktibo bat prestatzea	EGP IT	GAZ GES IAG	HE IAG EJ	EE	++



I9OGE. ELKARTEAREN ESPARRUTIK, ARRISKUZKO JOKABIDEAK PREBENITZEA ETA BERAJETAN ESKUARTZEA

P.17. ARRISKUZKO JOKABIDEAK		O	H	ER	EP	B
E65	Udaletan informazio kanpainak abiaraztea hurrengo arazoak saihesteko: - Janaren trastornoak - Gehiegizko kontsumoak - Trafiko istripuak - Jokaera bortitzak (kalean, ikasgelan, etxean...)	IT LT ESR EST	GAZ GES	EJ BFA UDAL	EE	++
E66	Arriskuzko jokabideei eta horiek osasunean duten eraginari buruzko txoke plan bat ezartzea. Plana gazte taldeek eramango dute aurrera.	LT EST EP	GAZ GES	EJ UDAL	EE	++
E67	Sektore pribatuak, elkartegintzak eta merkataritzak drogamenpekotasunak prebenitzeko programa eta proiektuetan parte hartzea (kogestioa, baterako finantzaketa, baliabide hornidura, profesionalen trukea)	IT EST	IAD IAG	EJ BFA UDAL	EE	++
E68	Nerabeei zuzenduriko Gizarte eta Hezkuntza Arloko Esku-hartze Programak eta Ekipoak bultzatzea, ingurune irekian (kalea, familia...), beste gizarte-eragile batzuekin elkarlanean eta sareko lana sustatuz	LT IT EST	GAZ GES	BFA UDAL PROF	EL	+
E69	Osasunarekin loturiko gaietan gazteekin esku hartuko duen bitartekari bat sortzea eta haren garrantzia aitortzea	EGP IT	GAZ GES	UDAL	EE	++



P.17. ARRISKUZKO JOKABIDEAK (JAR.)		0	H	ER	EP	B
E70	16 urtetik gorako gazteak helduarora bideratzeko programak sortzea eta bultzatzea, batik bat desabantaila soziala duten gazteei begira	EGP LT IT	GAZ	EJ BFA UDAL	EE	++
E71	Bitartekotza, adiskidetze eta gizartearen mesederako lanetarako programak, tratamendu anbulatorioa, gizarte-heziketako lanak, etab. bultzatzea, nerabe eta gazte arau-hausleentzat.	EGP IT EP	GAZ	BFA MANK	EE	++



GAZTEENTZAKO AISIA ETA KULTURA

6

H6AK. KALITATEZKO, PARTE HARTZEKO ETA ASEBETEGARRIA IZANGO DEN AISIA ESKAINTZA BERMATZEA

I10AK. AISIAKO ESKAINTZA BEHARRIZAN ETA ESKARIETARA EGOKITZEA

P.18. AISIA KOORDINATZEA		0	H	ER	EP	B
E72	Bilera bat egitea aisiarekin loturiko arloetako arduradun politiko zein teknikoekin eta sektore pribatuarekin, Eragileen Mahaiaren sorreraren berri emateko eta mahai horretan modu iraunkorren parte har dezaten eskatzeko.	LT IT	IAD IAG	UDAL	EL	+
E73	Planaren Mahaiak Aisiaren arloko Aholku Talde Teknikoa sortzea, profesional ez osaturikoa, arlo horretan funtsezkoak diren gaiak kontsultatzeko.	LT IT	IAD IAG PROF F	KM	EL	+
E74	Elkarteen arteko koordinazioa bultzatzea, aisia, kultura, kirola eta olgetaren arloan ekimen bateratuak abiarazteko.	LT IT	GAZ	IAG	EL	+
E75	Lokalen fenomenoaren inguruko gogoeta egitea, ukitutako eragile guztien partaidetzarekin: sektore pribatu komertziala (jabeak), gazteak (lokaleko kide izan ala ez), eta Udala, bitartekari gisa.	LT IT GJ ESR EST	GAZ T1	EG	EL	+
E76	Gazteentzako ekipamendu berri baten kudeaketa ereduari buruzko gogoeta egitea.	LT IT GT ESR EST	GAZ	KM UDAL PROF	EE	+
E77	Babesleak bilatu.	EGP IT	IAD	UDAL	EL	++
E78	Aisia, kultura eta kirolean euskararen tratamenduari dagokionean, Gernika-Lumoko Udalak Euskararen Plan Estrategikoaren lan-esparruetan onartu zituen neurriak eta ekintzak kontuan hartzea.					



P.19. AISIA KUDEATZEA		O	H	ER	EP	B
E79	Gazteen ekimenak bultzatzeko zerbitzu bat sortzea.	EGP IT	GAZ GES	KM	EE	++
E80	Gazte taldeentzako programa espezifikoak sortzea, adina, generoa, gizarte-egoera eta beste hainbat ezaugarriren arabera premiak eta eskakizunak kontuan hartuz.	LT GJ IT ESR EST	GAZ	KM UDAL	EE	+
E81	Gazteek kultur eta kirol egitarauetan parte hartzeko bideak irekitzea: - Iradokizun postontzia - Internet bidezko bozketak - Posta elektronikoko mezuak - Informazio gune interaktiboak	LT GJ IT ESR EST	GAZ	IAG	EL	+
E82	Udan bidaiak eta trukeak antolatzea udalerriko gazteen eta beste toki batzuetako artean.	GT	GAZ	KM UDAL	EE	++
E83	Lagun taldeen arteko ekintzetan oinarritutako aisia proposamenak bultzatzea.	GT ESR EST	GAZ	KM UDAL	EL	+
E84	Laguntzak bultzatzea (azpiegiturak, bitarteko materialak eta material ekonomikoak zein giza baliabideak), gazteei zuzenduriko jarduerak prestatzeko, sortzeko, ekoizteko eta hedatzeko.	LT IT EST	GAZ	UDAL	EL	++
E84 bis	Asteburu batean zabalik eduki gauez gazteriari zuzendutako zerbitzuak ikusteko aukera honen bideragarritasuna.					



P.19. AISIA KUDEATZEA (JAR.)		O	H	ER	EP	B
E85	Gurasoek eta seme-alabek elkarrekin egiteko ekintza programa bat sortzea (mendi irteerak, kultur jarduerak, udalekuak...)	LT IT EST	GU	KM UDAL	EL	++
E86	Gazteentzat erabilera anitzeko ekipamendu bat sortzea	LT GJ IT EST ESR	GAZ	UDAL	ELU	+++
E87	Udalerrian bidegorri sare bat eta bizikletentzako aparkaleku bat sortze	LT GJ IT EST ESR	EG	BFA UDAL	EE	+++
E88	Kirol ekipamenduak sortzea (skate park...)	LT GJ IT EST ESR	EG	UDAL	EE	++
E89	Udalerrian dauden aisiako ekipamendu, zerbitzu, programa eta jardueren irisgarritasun baldintzei buruzko txosten bat prestatzea	IT	EG	UDAL	EE	++
E89 bis	Kanpoaldean, olgetarako guneak sortu, adibidez, igerilekuak egiterakoan ingurua hornitu.					



P.20. AISIA EZAGUTZEA		O	H	ER	EP	B
E90	Aisiari dagokionez gazteengana iristeko komunikazio kanal eraginkorrenak zeintzuk diren ikustea	LT EST IT	GAZ	GIB	EL	+
E91	Herriko aisiako agenda birdefinitzea: gazteentzako edukiak aztertu behar dira eta ekitaldien zabalkundea ziurtatu	LT EST IT	GAZ	GIB	EE	+
E92	Gazteen informazio sareko sarbideak ugaritzea, telematikaren bidez, giza baliabideak eta baliabide materialak optimizatuz	EGP IT	GAZ	GIB	EE	++




III AK. GAZTEEN ELKARTE SAREA BULTZATZEA

P.2 I. AISIAN PARTE HARTZEA		O	H	ER	EP	B
E93	Gazte elkarteei zuzenduriko aholkularitza, prestakuntza eta laguntza zerbitzuak bultzatzea	EGP LT	GES	GIB	EL	+
E94	Elkartegintza bultzatzeko laguntzak mantentzea: dirulaguntzak ez ezik, baita baliabide teknikoak, azpiegiturakoak, prestakuntza eta abar ere.	EGP	IAG GES GAZ	UDAL	EE	++
E95	Nerabeekin lan egiten duten taldeei laguntza eskaintzea (aurrekontua handitzea eta azpiegiturak hobetzea)	EGP	IAG	UDAL	EL	+
E96	Udalerrian eta eskualdean gazteez osaturiko eta gazteei zuzenduriko kultur elkarten sorrera bultzatzea	EGP	GAZ	UDAL	EE	+
E97	Hirugarren sektoreari zuzenduriko prestakuntza ikastaroak antolatzea, gai hauen inguruan: - Elkarten kudeaketa - Boluntariora - Elkartegintza ereduak	EGP	IAG GES	GIB MANK	EE	++
E98	Gazte elkarteei lokalak erosten edo alokatzen laguntzea	LT IT	GES	UDAL	EE	++
E99	Elkartegintzari ekipamendu publikoak zein pribatuak uztea, esklusibotasun erabilera	LT EST IT	IAG	UDAL	EL	+
E100	Kultur elkartegintzarentzat espazioak sortzea	EGP LT	IAG GES	UDAL	EL	+



ANTOLAMOLDEA

ANTOLAKUNTZARAKO EGITURA
ESTRUCTURA ORGANIZATIVA





LABURPENA

Arloak	Helburuak	Esku hartzeko ildoak	Programak	Ekintzak
Gazte Planaren Koordinazio	H1K. Planaren inplementazioa eta jarraipena bultzatzea	I1K. Plana koordinatzen duten egitura eta prozesuak definitzea	P1 Plan Koordinatzea	E1-E5
		I2K. Gazteen parte hartze aktiboa sistematizatzea Planaren garapenean	P2 Plana Ezagutzea	E6-E9
			P3 Planean Parte Hartzea	E10-E13
Lana eta Laneratzea	H2LL. Lan munduan sartzea erraztea	I3LL. Politika integrala diseinatzea enplegu arloan	P4 Lana Koordinatzea	E14-E17
			P5 Lana Kudeatzea	E18-E19
			P6 Lana Ezagutzea	E20
Hezkuntza eta Prestakuntza	H3HP. Erantzun integrala sustatzea Heziketa Komunitatetik	I4HP. Gai gakoak eskola elkartetik eta elkarterentzat, era globalean esku hartzeko proiektu bat antolatzea	P7 Hezkuntza Koordinatzea	E21-E25
			P8 Hezkuntza Kudeatzea	E26-E34
		I5HP. Bizitzan zeharreko prestakuntza jasotzeko aukera emango duen ildo bat sendotzea	P9 Hezkuntzan Parte Hartzea	E35-E37
Etxebizitza	H4E. Etxebizitza bat lortzeko aukerak indartzea	I6E. Etxebizitza arloan dauden alternatibak sustatzea	P11 Etxebizitza Koordinatzea	E44-E47
		I7E. Etxebizitza arloko balabideak ezagutzea eta erabileraren berri zabaltzea	P12 Etxebizitza Kudeatzea	E48
			P13 Etxebizitza Ezagutzea	E49-E52
Osasuna eta Gizarte-Ekintza	H50GE. Ongizatea eta bizi kalitatea ziurtatzea	I80GE. Bizi estilo osasungarriak lantzea	P14 Osasuna Koordinatzea	E53-E60
			P15 Osasuna Kudeatzea	E61-E63
		I90GE. Elkartearen esparrutik, arriskuzko jokabideak prebenitzea eta beraietan esku hartzea	P16 Osasuna Ezagutzea	E64-E65
P17 Arriskuzko Jokabideak	E66-E72			
Gazteentzako Aisia eta Kultura	H6AK. Kalitatezko, parte hartzeko eta asebetegarria izango den aisia eskaintza bermatzea	I10AK. Aisiako eskaintza beharrian eta eskarrietara egokitzea	P18 Aisia Koordinatzea	E73-E78
			P19 Aisia Kudeatzea	E79-E89
		I11AK. Gazteen elkarte sarea bultzatzea	P20 Aisia Ezagutzea	E90-E92
			P21 Aisian Parte Hartzea	E93-E100